## ZUMETZAGA INGURUKO IBILIBIDEAK
## ITINERARIOS EN TORNO A ZUMETZAGA

**Bide gorria (8,2 km)**
Bi norabideetan egin daiteke: Larrauritik irten eta kanposantu ondotik (elizatik hurbil) ezkerretara edo eskuinetara jo. Eskuinetara jota, Tallu menditik pasatzen den bidetik Zumetzagara helduko gara. Ezkerretatik jota, markatutako GR-280-Uribe ibilbidea jarrai dezakegu Zumetzagaraino. Jaisteko bata zein bestea aukera dezakegu; hortik Larrauriraino (bus geltokiraino).
**Rojo (8,2 km)**
Se puede realizar en dos direcciones: saliendo de Larrauri, junto al cementerio se puede ir a derecha o a izquierda. Por el camino de la derecha, rodeando el monte Tallu, se llega a Zumetzaga. Cogiendo a la izquierda, se coincide en parte con el recorrido marcado GR-280-Uribe hasta Zumetzaga. Para bajar, elegida una u otra opción llegaremos a Larrauri (parada de autobús).

**Bide urdina (2,7 km)**
Markaidarako errepidean gelditu eta seinalizatuta dagoen tokitik oinez igo daiteke Zumetzagara (bidea hartuta, ezkerretara eta gora beti).
**Azul (2,7 km)**
Parando en la carretera a Markaida, se sube a Zumetzaga desde el punto señalizado (una vez tomado el camino, a la izquierda y subida)

**Bide berdea (1,8 km)**
Behin Zumetzagara helduta, Jata mendira igo gaitezke (aldapa gogorra). Behin Jatan, joaneko bidetik itzul gaitezke edo, aldatz xamurragoak gura izanez gero, Jatabera edo Bakiora jaits gaitezke.
**Verde (1,8 km) ,**
Una vez llegados a Zumetzaga, se puede subir en una dura subida al monte Jata. Después podemos volver sobre nuestros pasos o en bajadas menos duras, llegar a Jatabe o Bakio.




San Migel Euskal Herriko zaindaritzat daukagu eta jaieguna eta erromeria irailaren 29an ospatzen dira.

San Migel, protector de Euskal Herria, se celebra el día 29 de setiembre; en Zumetzaga se celebra una romería.

# Zumetzaga San Migel

Cast. Eusk

**MUNGIA**

Ibilaldi batzuk XII. mendeko baseliza itzel baten ingurura.
Rutas en torno a una ermita del siglo XII.




*ibili*
*ikusi*
*jakin*



Zumetzagako Done Mikel edo San Migel ermita Jata mendiaren hegaletako batean dago. Erromanikoak Bizkaian duen garrantzitsuenetakoa da. Izan ere, erromaniko eta gotikoaren arteko trantsizio garaian eraiki zen (XII-XIII). Ermita honen lehen aipamenak XVI. mendean dokumentatu dira, baina XIX.era arte ez ziren baseliza bera aztertzen hasi.

La ermita de San Miguel de Zumetzaga, ubicada en las laderas del monte Jata, es una de las más importantes representaciones del románico en Bizkaia. Construida en el período de transición entre románico y gótico (XII-XIII) comenzó a ser “descubierta” y estudiada en el XIX.



Nabe bakarreko ermita, hormak sendotzeko kontrahormak ditu. Isuri biko teilatua du eta hiru gurutze kanpai-hormetan. Garai desberdinetako hiru sarrera ditu: zaharrena hegoaldeko atea da; aterpe batek babesten ditu iparraldeko eta mendebaldeko sarrerak.

Ermita de una sola nave; los muros están reforzados con contrafuertes. Hay tres accesos de diferentes épocas, siendo el más antiguo el que da al sur. Un pórtico protege las entradas N y O.



Absidean balio handiko elementua- dago. Punta arkudun leihoa eta kapiteletan landare besoak dituen irudi antropomorfoa (giza itxurakoa) dago, iratze eta pinaburuak eta landareak botatzen dituen giza itxurako bat, interpretazio desberdinak dituena: grina gaiztoek harrapatutako bekatariaren sufrimendua; mitologia zeltaren irudia, naturaren adierazpena...

En el ábside una ventana de arco apuntado de gran valor. En los capiteles exteriores una figura antropomorfa rodeada de brazos vegetales, helechos y piñas, acantos y una máscara humana que tiene diversas interpretaciones: imagen didáctica del pecador atrapado por sus pasiones; figura de la mitología celta representación masculina de la naturaleza...



Leihoaren barruko aldean arkibolta bakarra dago. Zutabeetako batek fuste leuna dauka eta bigarrenaren fustea lau orriko sare batek apainduta dago.

En la parte interior de la ventana hay una sola arquivolta. Una de las columnas tiene el fuste adornado con una retícula de flores de cuatro hojas.



Puntadun garaipen-arku batek bi aldetan zatitzen du ermitaren nabea. Garaipen-arkuari eusten dioten kapitelak landare gaiez apainduta daude.

Un arco apuntado separa en dos partes la ermita, con bóvedas de cañón. Los capiteles están adornados con motivos vegetales.



San Migel goiaingeruaren irudi nagusia barrokoa da. Deabruaren gainean dago, esku batean ezpata eta bestean arimak pisatzeko balantza duela. Beste taila bi daude, bata San Migelena eta bestea Amabirjinarena, estilo gotiko berantiarrekoak.

Unas tallas populares acompañan a la imagen principal de San Miguel Arcángel de estilo barroco; este aparece encima del diablo con una espada en una mano y una balanza para el pesaje de almas en la otra.

## ANTZINAKO IBILBIDE BATEN AZTARNAK

Zumetzagatik pasatzen zen Bermeo eta Bakio Mungiarekin batzen zituen Erdi Aroko bide bat. Bide hori erromesek erabiltzen zuten. Bermeora itsasontziz helduta, Bilbora joateko bi bide zituzten, bata Zumetzagatik igarota: Bermeo-Gaztelugatxe-San Pelayo-Zumetzaga. Hemendik Larraurira eta, Elorduiganetik, Mungiara, Txorierriko bideagaz batuz. Zumetzagako ermitatik hurbil, ustez Erdi Arokoa den tumulu bat dago.




## UNA RUTA MEDIEVAL

Por Zumetzaga pasaba una ruta medieval que comunicaba Bermeo y Bakio con Mungia. Esta ruta servía también a los peregrinos que llegaban en barco a Bermeo y de allí a Bilbao, pasando una de sus dos rutas por Zumetzaga: Bermeo-Gaztelugatxe-San Pelayo-Zumetzaga. Desde Zumetzaga se bajaba a Larrauri y por el alto de Elordui se llegaba a Mungia, desde donde se tomaba rumbo a Bilbao pasando por Laukariz y Zamudio.

En las inmediaciones de la ermita de Zumetzaga también podemos encontrar un túmulo supuestamente de origen medieval.